

#### 4. UDALEZ GAINDIKO TOKI ENTITATEEN ESKUMENAK

*“2017ko proposamenaren asmoa da gaur egun Nafarroako Gobernuak betetzen dituen beste eskumen garrantzizko batzuk eskualdeei esleitzea, arloko legedien aldaketaren bidez”.*

---

##### **2017ko proposamena**

Ez zaio inolako mugarik ezartzen eskuordetzeko edo hitzarmenak egiteko udalek daukaten eskumenari, oinarrizko legediak ezartzen dituenaz aparte.

Proposamen honen asmoa da gaur egun Nafarroako Gobernuak betetzen dituen beste eskumen garrantzizko batzuk esleitzea, arloko legedien aldaketaren bidez.

Bai udalek, baita eskualdeek ere, sustapen-jarduerak egiten ahalko dituzte edozein arlotan (gizartea, ekonomia, kultura, turismoa), beren toki komunitateko beharrak eta asmoak asetzen laguntzeko.

##### **2012ko Foru Lege Proiektua**

Delegatzeko edo hitzarmenak egiteko udal-eskumena murrizten du, eta hori oinarrizko legediaren aurka doa.

Ez du asmorik Interes Orokorreko Mankomunitateei esleitzeko Nafarroako Gobernuak gaur egun betetzen duen eskumenik.

Ez zen aintzat hartzen, ezta ere, ekonomia, kultura edo turismo mailako ekimenik egiten ahalko zuenik ere, eta zerbitzu delegatuak ematera mugatuko ziren.